

**BESTE UDALERRI BATZUETAKO IGERILEKUAK
ERABILTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIA, 2022KO EKITALDIA**

Udalbatzaren 2021eko ekainaren 8ko erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion beste udalerrri batzuetako udal-igerilekuak erabiltzeko diru-laguntzen sistema arautzen duen ordenantzari (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 125. zk., 2021eko uztailaren 2koa), eta, ondoren, behin betiko onespena eman zitzaion, 2021eko irailaren 10eko BAO on argitaratuta (175. zk.).

Irailaren 14ko 952/2022 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, beste udalerrri batzuetako udal-igerilekuak erabiltzeko diru-laguntzak emateko deialdi publikoa onartu zen 2022. urterako, norgehiagoka-erregimenean eta udal-igerilekuak erabiltzeko diru-laguntzen sistema arautzen duen ordenantzaren arabera.

Deialdi honen edukia, 2022ko ekitaldirako, honako hau da, onartutako oinarri arautzaileen arabera:

Lehenengoa.- Onuradunak

Diru-laguntza eskatu ahalko dute Urdulizko udalerrrian erroldaturik dauden pertsona guztiek, eskabideari dagokion aldian.

Udalaren diru-laguntza jasotzen dutenek zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak izan beharko dituzte, baita Urdulizko Udalarekiko zerga betebeharrak ere.

Errolda-baldintza eta udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela ofizioz

**CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE
SUBVENCIONES PARA LA UTILIZACIÓN DE LAS
PISCINAS MUNICIPALES DE OTROS MUNICIPIOS
EJERCICIO 2022**

Mediante acuerdo plenario de 8 de junio de 2021, se aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora del sistema de subvenciones para la utilización de las piscinas municipales de otros municipios (Boletín Oficial de Bizkaia número 125 de 2 de julio de 2021), tras la que se procedió a su aprobación definitiva con la publicación en el BOB número 175 de fecha 10 de septiembre de 2021.

Mediante Decreto de Alcaldía nº 952/2022 del 14 de septiembre de 2022 se aprueba la convocatoria pública para la concesión de subvenciones destinadas a la utilización de las piscinas municipales de otros municipios para el ejercicio 2022, en régimen de concurrencia competitiva y con arreglo a ordenanza reguladora del sistema de subvenciones para la utilización de las piscinas municipales.

El contenido de la presente convocatoria, para el ejercicio 2022 es la siguiente, según las bases reguladoras aprobadas:

Primero.- Personas beneficiarias

Podrán solicitar subvenciones todas aquellas personas que estén empadronadas en el municipio de Urduliz en el periodo al que se refiera la solicitud.

Quienes reciban la subvención municipal deberán de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social, así como al corriente con las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Urduliz.

El requisito de empadronamiento y el estar al corriente con las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento será comprobado de oficio, salvo

egiaztatuko da, berariaz kontrakorik adierazi ezean.

Bigarrena.- Xedea

Urdulizko Udalak, araudi honetan ezarritako prozeduraren bidez eta bertan adierazten diren baldintzekin, laguntzak emango ditu udalerri honetan erroldatuta dauden pertsonen beste udalerri batzuetako udal igerilekuak erabiltzeko.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Diru-laguntzaren deialdia Urdulizko Udalaren webgunetik jaitsi ahal izango da: <http://www.urduliz.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20210910-aprobacion-definitiva-ordenanza-reguladora-sistema-subvenciones-utilizacion-piscinas-municipales.aspx>

Laugarrena.- Aurrekontu-kreditua

Deialdi hau aplikatzeko aurreikusitako baliabideak 65.000 €koak dira. Kreditu hori Urdulizko Udalaren 2022ko ekitaldirako aurrekontuetan, bai eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2022-2024n ere dago jasota, 48100000-3421 aurrekontu-partidan.

Eskabide-kopuruaren ondoriozko zenbatekoa deialdiko aurrekontua baino handiagoa bada, eskabide guztien arteko hainbanaketa egingo da.

Bosgarrena.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2022ko abenduaren 9an

manifestación expresa en contrario.

Segundo.- Objeto

El Ayuntamiento de Urduliz, mediante el procedimiento que se establece en la Ordenanza reguladora del sistema de subvenciones para la utilización de las piscinas municipales de otros municipios, y con las condiciones que en la misma se señalan, otorgará ayudas para la utilización por parte de los/las vecinos/as empadronados/as en este Municipio, de las piscinas municipales de otros municipios

Tercero.- Bases reguladoras

La convocatoria de la subvención podrá descargarse de la página web del Ayuntamiento de Urduliz: <http://www.urduliz.eus/es-ES/Noticias/Paginas/20210910-aprobacion-definitiva-ordenanza-reguladora-sistema-subvenciones-utilizacion-piscinas-municipales.aspx>

Cuarto.- Crédito presupuestario

Los recursos previstos para la aplicación de esta convocatoria asciende a 65.000 €, crédito que figura en los presupuestos para el ejercicio 2022 del Ayuntamiento de Urduliz para esta ayuda, así como en el Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024, a la partida presupuestaria 48100000-3421.

Si la cuantía derivada del número de solicitudes excediese del presupuesto disponible y que se señala en la convocatoria se efectuará la correspondiente prorrateo entre todas ellas

Quinto.-Plazo de presentación de solicitudes

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará el 9 de

amaituko da, egun hori barne.

diciembre de 2022, incluido.

Seigarrena.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Sexto.- Solicitudes y documentación a aportar

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

La hoja de solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia eta, hala badagokio, eskabidea sinatu duen pertsonarena, ordezkaritza egiaztatzen duen agiriarekin batera. Eskatzailea adingabea denean, guraso edo tutore baten egingo du eskaera, eta, horretarako, familia-liburua aurkeztuko du.
- Diru-laguntza lortzea eragozten duten egoeretako batean ere ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (eredu ofizialaren arabera).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak. Hala ere, eskatzaileak, ziurtagiri horien ordezkari, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du ondorio zehatz horietarako (eredu ofizialaren arabera), uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluekin bat etorritik.
- Beste udalerri bateko udal-igerilekuak erabiltzeagatik egindako ordainketen egiaztatzea, honako hauek zehaztuko dituenak:
 - Erakunde kobratzailearen izena.
 - Ordaintzailearen izena
 - Ordaindutako kopurua edo kopuruak eta kontzeptua (banakako ordainketa, familiakoa, etab.)
 - Fakturatutako datak edo aldian.
- Hirugarrenen alta-agiria, banku-
- Fotocopia del DNI del solicitante y, en su caso, de la persona firmante de la solicitud junto con documento que acredite su representación. Cuando el solicitante sea menor de edad la solicitud será formulada por un progenitor o tutor, aportando a tal efecto el libro de familia.
- Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las circunstancias que impiden la obtención de la subvención (según modelo oficial).
- Certificados de estar al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. No obstante, el solicitante podrá sustituir la aportación de estos certificados por la presentación de declaración responsable a estos específicos efectos (según modelo oficial), de conformidad con el artículo 24.4 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Documento acreditativo de los pagos efectuados con ocasión del uso de las piscinas municipales de otro municipio, que especificará:
 - Nombre de la entidad cobratoria.
 - Nombre de la persona pagadora.
 - Cantidad o cantidades abonadas y concepto (abono individual, familiar etc..)
 - Fechas o periodos facturados.
- Documento de Alta de terceros debi-

erakundeak behar bezala sinatua.

damente firmado por la entidad bancaria.

Zazpigarrena.- Eskabideak aurkezteko lekua

Eskabideak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- Udal Erregistroa: Elortza Plaza 1, 8: 30etik 13: 30era, astelehenetik ostiralera.
- Urdulizko Udalaren webguneko ON LINE IZA-PIDEEN bidez: www.urduliz.eus
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz.

Séptimo.- Lugar de presentación de solicitudes

La presentación de las solicitudes se podrá realizar en los siguientes lugares:

- Registro Municipal sito en Elortza Plaza, 1 en horario de 8:30 a 13:30h de lunes a viernes.
- Mediante TRÁMITES ON LINE, de la página web del Ayuntamiento de Urduliz: www.urduliz.eus
- A través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Zortzigarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Aipatu baldintzak betetzen dituztenei, hala eskatzen badute, Urdulizko Udalak kopuru finko bat ordainduko die, ordainketa motaren arabera. Hona hemen:

Abonamendua	Gehinenezko diru laguntza zenbatekoa	
	Hileko	Urteko
Banakako heldua	8 €	96€
Banakako txikia	4 €	48 €
Bakarkako erretiratua eta/edo pentsioduna	4 €	48 €
Familiarra	12 €	144 €

Ordaindu beharreko zenbatekoak diru-laguntza eskatzen den urtean egindako ordainketei dagozkie, eta ez dira onartuko aurreko urteetan egindako ordainketetarako diru-laguntza eskabideak.

Bederatzigarrena.- Prozedura

Octavo.- Importe de la ayuda

A las personas que cumpliendo los requisitos mencionados así lo soliciten, el Ayuntamiento de Urduliz, abonará una cantidad fija en función del tipo de abono que será la siguiente:

Tipo abono	Cantidad máxima subvencionada	
	Mensual	Anual
Individual adulto	8 €	96€
Individual menor	4 €	48 €
Individual jubilado/a y/o pensionista	4 €	48 €
Familiar	12 €	144 €

Las cantidades a abonar corresponderán en todo caso con los pagos realizados en el año de petición de la subvención, no siendo admitidas solicitudes de subvención de aquellos pagos realizados en años anteriores.

Noveno.- Procedimiento

Prozedura ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da. Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da. Gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek zilegi dute beren eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jotzea.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udal honetako Alkatezari, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena.- Diru-laguntzak ordaintzea

Deialdia ebatzi eta ebazpena interesdunei jakinarazi ondoren, onartutako zenbatekoak gehienez hilabeteko epean ordainduko dira, arauzko izapideak egin ondoren.

Hamaikagarrena.- Arau-haustek, zehapenak eta itzulketak

Arau-hausteei eta zehapenak ezartzeari, prozedurari eta dirua itzultzeko arrazoiei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

Urdulizen, 2022ko irailaren 15ean- Javier Bilbao Lopategui alkatea

El órgano competente para la resolución del procedimiento será la Alcaldía. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis meses. El vencimiento de este plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a las personas interesadas para entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. La resolución que se dicte pondrá fin a la vía administrativa; y contra el mismo cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía de este Ayuntamiento, o bien directamente recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre y Ley 29/1998 de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Décimo.- Abono de las subvenciones

Resuelta la convocatoria y notificada la resolución a los interesados, el abono de los importes reconocidos se realizará en el plazo máximo de un mes, previos los trámites reglamentarios.

Undécimo.- Infracciones, sanciones y reintegros

Todo lo referente a la comisión de infracciones y la imposición de sanciones, el procedimiento y las causas de reintegro, se regirá por lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En Urduliz , a 15 de septiembre de 2022.- El Alcalde, Javier Bilbao Lopategui